



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak *Los siete pecados capitales* bere ekoizpen berria estreinatuko du bihar; opera, dantza, musika eta antzerkia konbinatzen dituen ikuskizun handia

- 5 abeslarik, 9 dantzarik, orkestra 1ek eta 3 antzezlek interpretatzen dute Kurt Weill eta Bertolt Brechtek elkarrekin egin zuten azken konposizioa, Barbora Horáková Jolyk zuzendutako muntaia ikusgarri honetan.
- Nicola Beller Carbone soprano alemaniarra da bost abeslari solisten artean lehena, Javier Tomé eta Josu Cabrero tenoreekin, José Manuel Díaz baritonoarekin eta Fernando Latorre baxu-baritonoarekin batera.
- Dantza Sari Nazionala duen Iratxe Ansa da erritmoz eta dinamismoz betea dagoen koreografia interpretatzen duen dantza taldearen buru, eta Iratxe Ansa berak Igor Bacovichekin batera sortu du koreografia.
- Iker Sánchez Silva da ikuskizun honen zuzendari musikala eta Bilbao Sinfonietta orkestrak interpretatuko du Kurt Weillen obra, 15 instrumentistentzako bertsio murriztuan.
- Wariot Ideal talde txekiarra, hiru aktore/performerrez osatua, espazio eszenikoaren konfigurazioaz arduratu da eta eszenan ere arituko da.
- Ikuskizun hau ekainaren 4an eta 5ean ikusiko dugu, eta Arriaga Antzokiak Guggenheim Bilbao Museoren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotuta prestatu duen programazio bereziaren baitan dago.

**Bilbo, 2021eko ekainaren 3a.**- Arriaga Antzokiak denboraldi honetako bere azken ekoizpen handia eskainiko du bihar, ekainaren 4an, ostiralean, eta etzi 5ean, larunbatean, 19:00etan. ***Los siete pecados capitales*** obraz ari gara. Arriaga Antzokiak ekoizten eta eszenaratzen duen muntaia ikuskizun handia izango da, eta opera, dantza, musika eta antzerkia konbinatzen ditu.

Zalantzarik gabe, opera zaleek ezingo diote *Los siete pecados capitales*ek proposatzen dien hitzorduari huts egin, ezta dantzaren zaleek ere, izan ere, zazpi eszenatan banatutako ballet chanté ("ballet kantatu") ospetsua, **Kurt Weillen** musika eta **Bertolt Brechten** libretoa dituen, XX. mendearen lehen erdiko konposizio handienetako bat baita. 1933 da, Parisen, eta bai Weill, bai Brecht Alemania nazitik ihesi dabilta. Aurreko proiektu batzuetan bi pertsonaia ospetsu horien artean tentsio artistikoa sortu arren, erabaki zuten elkarrekin ekitea *Los siete pecados capitales* (alemanezko jatorrizko bertsioan *Die sieben Todsünden*) izeneko kabaret satiriko honi, elkarrekin egin zituzten lehen operatan elkartu zituen helburu berarekin: gizartea aldatzen saiatzea, moral bikoitza salatzen zuen zinismo korrosibo baten bidez.

Proiektu honek **Barbora Horáková Joly**ren zuzendaritza eszenikoa du. Zuzendari txekiarrak International Opera Award saria jaso zuen 2018an, Europako panorama operistikoaren agerpen aipagarrienenari, eta oraingoan ere Arriaga Antzokiaren

ekoizpen propio bat zuzendu du, *L'Orfeo, I hate music, Dido & Aeneas* eta *El amor brujo-Siete canciones populares españolas* obrei bere ukitua eman ostean.

Zuzendaritza musikarari dagokionez, **Iker Sánchez Silvak** du horren ardura, eta bera da "ballet kantatua" gidatuko duena, zeinetan mugimendu bakoitza bekatu bati dagokion. Sánchez Silvak jada partekatu zuen Arriagaren beste ekoizpen propio baten zuzendaritza Horákovárekin, hain zuzen, *El amor brujo-Siete canciones populares españolas*en, 2019ko urrian. Oraingoan, Iker Sánchez Silvak *Los siete pecados capitales*en muntaia gidatuko du bere batutarekin. Ikuskizuna oso interesgarria da alderdi musikarari dagokionez: Europako musika herrikoa, swingaren doinuak, balsak eta foxtrot edo ragtime erritmodun martxak aurkituko ditugu. Arriaga Antzokiaren ekoizpen berri honetan eskaintzen den bertsioa 15 instrumentistentzat egindako murrizketa zaindua da, eta **BilbaoSinfonietta** orkestrak interpretatuko du. Honela, ikusleak are modu egokiagoan hurbildu ditzakegu 1930eko hamarkadako kabaretik lizunenetan jotzen zuten Jazz banda haiengana.

### **Abeslari bikainak**

Maila goreneko bost ahots solistek interpretatzen dute *Los siete pecados capitales*. **Nicola Beller Carbone** soprano alemaniarra da ikuskizuneko ahots-boskotearen burua, eta Annarena egiten du, antzezten den istorioaren protagonista nagusiarena. Eta horixe da, hain zuzen ere, **Iratxe Ansa** dantzariak egiten duen paper berbera, bere kasuan, paperari dantzatik helduz.

Nicola Beller Carbone opera abeslaria rock, jazz, kale antzerki eta kabaretaren bidez iritsi zen kantu klasikora. Alemanian jaioa eta Espainian hazia, dantzari, instrumentista eta aktore gisa duen eskarmentuak bereziki aberasten du ikuskizun honetarako bere pertsonaiaren sorkuntza. Gainera, Beller Carbonek Kurt Weillen lana sakonean ezagutzen du, bere ibilbide artistikoan zehar hamaika bider interpretatu baititu haren lanak.

Sopranoarekin batera, lau ahots maskulinok osatzen dute solisten boskotea, zehazki, **Javier Tomé** eta **Josu Cabrero** tenoreen ahotsek, **José Manuel Díaz** baritonoarenak eta **Fernando Latorre** baxu-baritonoarenak. Ospe eta maila artistiko handiko abeslari euskalduna dira laurak, opera-eszenan maiz ibiltzen direnak eta, oraingoan, Annaren senideen paperetan arituko dira (eta keinu ironiko bat egingo dute, amaren papera ere gizon batek interpretatuko baitu).

### **Koreografia ikuskizunaren zerbitzura**

Dantza da *Los siete pecados capitales*en oinarrietako bat eta, horri dagokionez, proposamen artistikoa **Iratxe Ansak** (2020ko Dantza Sari Nazionala) eta **Igor Bacovichek** egin dute. Haiiek arduratu dira ikuskizunaren koreografia lanaz. Horretarako abiapuntua Metamorphosis Dance beren konpainiarekin egiten duten lanak erakusten duen ohiko lengoaia izan da, baina zabalik mantendu dira oraingoan, ikuskizunaren amaierako emaitzaren alde, bakarlariek eta eszena zuzendaritzak prozesu osoan zehar helarazi dizkieten estimuluek betetzeko. Gainera, azpimarratu behar da Iratxe Ansak eta Igor Bacovichek ez dituztela soilik artisten mugimendu eszenikoa eta dantzako esku-hartzeak diseinatu, baizik eta bederatzidantzariak osatzen duten dantza taldearen buru direla. Dantzariak mugimendurako talentua agertzen dute, eta baita gorputz eta arima jarduteko gaitasun fisiko handia ere, erritmoz eta dinamismoz jositako koreografia oholtzaratzeko orduan. Ansa eta Bacovichekin batera, dantza taldean daude **Gaizka Morales, Jay Diego, Úrsula Mercado, Valerio Di Giovanni, Elias Backebjork, Beñat Andueza** eta **Kontxesi Fernández**.

Hori gutxi balitz, aipatzekoa da Txekiako **Wariot Ideal** taldeak ikuskizunari, bere osotasunean, egin dion ekarpen garrantzitsua; izan ere, eszenografiak, soinuak eta

argiztapenez arduratzen dira, eta, gainera, agertokian bertan parte hartzen dute ere, antzezle gisa. Taldea hiru aktore/performerrez osatuta dago, eta ospe handia lortu du Txekiar Errepublikako eszena independentean. 2009an sortu zen, eta ordutik proiektu artistikoak eta lankidetzak egiten ditu ukitu oso pertsonalarekin.

### **Zeri buruzkoa da *Los siete pecados capitales*?**

Pieza honek amets bat lortzeaz hitz egiten digu, amets amerikarraz, kasu honetan. Baliabide gutxi dituen familia amerikar batek etxe bat eraiki nahi du, eta alaba kanpora bidaltzen dute horretarako dirua lor dezan. Neska, Anna izenekoa, Estatu Batuetako hainbat hiritan barrena ibiltzen da, zazpi hiritan zehazki, eta horietako bakoitzean zazpi bekatu kapitaletako bati egin beharko dio aurre.

Ikuskizunean, alabaren papera hurbilketa bikoitz baten bidez erakusten da, nortasun bikoitza islatuz bezala. Horietako bat abeslariak (Nicola Beller Carbone) interpretatzen du, eta pertsonaiaren alderik neurtuena, zentzudunena eta zuhurrena hezurramitzen du. Beste nortasuna dantzariarena da (Iratxe Ansa egiten duena), eta honek izaera ausartagoa eta, batzuetan, sineskorra agertzen du. Piezan zehar Annaren bilakaera ikus daiteke: hasieran neska gazte batek hiri handi batean izan ohi dituen idealak eta ametsak ditu baina, aurrera egin ahala, bizitzaren alderdi ilunak ezagutzen ditu. Eta ibilbide horretan daude zazpi bekatu kapitalak, nolabait guztiok ezagutzen ditugunak, gizakiok berezko baititugu.

Eta hor dago ere Annaren familia (aita, ama eta bi anaia), lau gizonezko bakarlarik interpretatzen dutena. Haien interpretazioan greziar koru baten antzeko ezaugarriak antzematen dira, Jainkoari erreguak egiten baitizkiote etengabe, "(Annak) lor dezan eta etxea eraikitzeko dirua ekar diezaien". Baina karikaturizazio horien atzean Weillek eta Brechtek industria handiari egiten zioten kritika txertatzen zuten, merkataritzaren norabideari eta Estatu Batuetako krisiari egiten zizkietenak, gaur egun guztiz indarrean dauden salaketak eginez. Kritikatzen zutena, azken batean, amets amerikar horren utopia zen, ez baitzen ongizatearekin lotutako amets bat, alderdi materialarekin lotutakoa baizik. Piezan Anna amets material hori lortzeko zenbat eskaintzeko gai den erakusten digute, eta baita bidean zer (nor) saltzen den ere. Materialismoari eta, azken finean, kapitalismoari egindako kritika hori guztia agerikoa da Kurt Weillen eta Bertolt Brechten azken lan handi honetan.

### **Urte eroak, 1920ko hamarkada**

Arriaga Antzokiak prestatu dituen zazpi ikuskizunetatik laugarrena da hau, une honetan Guggenheim Bilbao Museoan ikusgai dagoen *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketarekiko paraleloan eta haren osagarri gisa egindakoetatik.

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren inplikazioaren bidez sortu zela, berak egin baitu *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren ukitu pertsonala emanez, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarrizketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskainiko dira.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 19 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# Los siete pecados capitales

Kurt Weill eta Bertol Brechtena

Zuzendari musikala: **Iker Sánchez Silva**.  
Zuzendari eszenikoa: **Barbora Horáková Joly**.

Koreografia: **Iratxe Ansa, Igor Bacovich**.

Espazio eszenikoa eta antzezleak: **Wariot Ideal**.

Jantziak: **Óscar Armendariz**.  
Zuzendariaren laguntzailea: **Nagore Navarro**.

Anna I, sopranoa: **Nicola Beller Carbone**.  
Anna II, dantzaria: **Iratxe Ansa**.

Senideak; bi tenor, bi baritono: **Javier Tomé, Josu Cabrero, José Manuel Díaz, Fernando Latorre**.

Dantzariak: **Igor Bacovich, Gaizka Morales, Jay Diego, Úrsula Mercado, Valerio Di Giovanni, Elias Backebjork, Beñat Andueza, Kontxesi Fernández**.

Orkestra: **BilbaoSinfonietta**.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)